

Hiri hondakin solidoak, bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuari buruzko ordenantza. Behin betiko onespena

96. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 2004ko abuztuaren 11koan, argitara eman baitzen hasiera batez onetsi zela Hiri hondakin solidoak, bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuari buruzko ordenantzaren aldaketa, eta iragan baita jendaurrean egon beharreko epea, inork haren aurkako alegazio, kexa edo oharririk aurkeztu gabe, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legeko 325. artikuluan gai honi buruz ezarritakoak hala agintzen baitu, behin betikoz onetsita gelditu da, honekin batera eranskin bakar gisa doan testuan zehazten den bezala.

Hori guztia argitara ematen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 325 eta 326. artikuluetan eta aplikatzen ahal den gainerako legerian ezarritakoa betetzeko.

Lakuntzan, 2006ko martxoaren 7an, Mankomunitateko lehendakaria, Gorka Ovejero Ganboa.

ERANSKIN BAKARRA

Hiri hondakin solidoen kudeaketa arautzen duen ordenantza

I. TITULUA

Baldintza orokorrak

1. artikulua. Sakanako Mankomunitatea elkarte izaerako toki entitate bat da, eta haren helburuetako bat da hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak eskaintzea, Mankomunitatean sarturik dauden toki entitateen mugapeetan, garbitasun eta txukuntasun publiko egokiak, ingurumenaren babesa eta hondakinen berreskuratzea lor daitezten.

2. artikulua. Sakanako Mankomunitateak zerbitzu horiek zuzenean kudeatzen dituela kontuan harturik, beharrezkoa egiten da ordenantza hau zerbitzu horiek arautzeko.

3. artikulua. 1. Lurren horren barrenean hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak kudeatzen dituen Sakanako Mankomunitatearen eta erabiltzaileen arteko harremanak arautzea da ordenantza honen xedea; bertzeak bertze, bi alderdietako bakoitzak dituen eskubide, betebeharrak eta egitekoak zehaztea.

2. Zerbitzu horien tributu eta dirubilketa kontuetarako, toki ogasunei buruz Nafarroan indarra duen araudia berariazkoari eta, batez ere, une bakoitzean indarra duen ordenantza fiskalari egin beharko zaie kasu.

4. artikulua. 1. _Ordenantza hau, bere eskumeneko eremuan, hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuetan aplikatuko da oro har, bai eta delako eremutik at ematen direnetan ere, osoki edo hein batean.

2. _Ordenantza honetako arauak analogiaz aplikatuko dira, izaeragatik ordenantzaren ezarpen esparruan izanik espresuki araututa ez dauden kasuetan.

3. _Sakanako Mankomunitateak ordenantza aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzen gainean egoki juzgatzen duen interpretazioa ezarriko du.

5. artikulua. Hiri hondakinak bildu eta tratatzeari buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legeko eta aplikatzeko diren bertze xedapenetako oinarriari jarraikiz arautu da ordenantza hau.

6. artikulua. Aurreko artikuluan aipatu Legearen arabera, hona hemen zer diren:

"Hondakina" edozein gai edo gauza da, ordenantzaren eranskinean ageri diren kategorietan sartutakoa, bere jabeak botatzen badu, bota nahi badu edo, botatzera beharturik badago. Halakoxeak dira Elkarteko Erakundeek onetsitako Europako Hondakinen Katalogoa (EHK) izenekoan bildutakoak ere.

"Hiri edo udal hondakinak" etxebizitza partikularretan, saltokietan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutakoak, bai eta arriskutsuaren kalifikazioa ez dutenak eta haien izaera edo osaketa dela-eta, aipatutako toki edo jarduerak sortutakoekin parekatu daitezkeenak ere. Era berean, hiri hondakinak dira honako hauek:

_Eremu publikoak, berdeguneak, jostetagineak eta hondartzak garbitzetik heldu direnak.

_Etxeko animalia hilak, bai eta bazter utzitako altzariak, trasteak eta ibilgailuak.

_Etxeetako eraikitze eta berritze obra txikietatik heldu diren hondakin eta zaborrak.

"Kudeaketa": hondakinen bilketa, biltegitratzea, garraioa, balorizazioa eta deuseztapena, jardunbide horien zaintzea barne, hala nola hondakinak utzi edo botatzeko tokien zainketa, itxi eta gero.

"Balorizazioa": hondakinetan dauden baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duten prozedurak oro, giza-osasuna arriskutan jarri gabe, eta ingurugiroari kalterik eragin liezaioketen metodorik erabili gabe.

"Deuseztapena" bai hondakinak botatzera, bai haien suntsipen oso nahiz partzialera zuzenduak diren prozedurak oro, giza-osasuna arriskuan jarri gabe egina, eta ingurumenean kalterik eragin lezaketzen metodorik erabili gabe.

7. artikulua. 10/1998 Legearen arabera, hiri hondakin solidoak Sakanako Mankomunitatearen jabetzakoak dira, jabeek horiek eman eta gero.

8. artikulua. Ordenantza honen esparrutik at geratzen dira bai edozein motatako hondakinak lurrazpiko egitura naturaletan edo artifizialetan biltegitratzea, bai

meategietan onura, ustiapen edo ikerketa jardueretan sortutako hondakinak biltegitatu edo aprobetxatzea.

At geratzen dira, halaber, nekazaritza eta abeltzaintza jardueretako hondakin eta hondarrak, Lurzoruari buruzko Legearen arabera urbanizaezintzat jotako lurzoruan sortu edo uzten direnean.

II. TITULUA

Hiri hondakinen bilketa

I. KAPITULUA

Baldintza orokorrak eta hondakinen kategoriak

9. artikulua. Hiri hondakin eta hondarrak biltzeko zerbitzuak arautuko ditu titulu honek; alegia, Sakanako Mankomunitateak nola emanen dituen zerbitzu horiek eta erabiltzaileak nola baliatuko dituen.

10. artikulua. Erabiltzaileak dira zerbitzu hauek aprobetxatzen dituzten edo zerbitzu hauek ukitutako pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

11. artikulua. Ordenantza hau aplikatzeko, hondakin kategoria batzuk finkatzen dira, eta horietatik zehazten dute, hain zuzen, zein baldintzatan eskainiko diren zerbitzuak. Zerbitzuetako bat _etxeetako zaborrak edo gisakoak biltzea_ nahitaezkoa da, eta gainerakoak borondatezko ditu herritarrak.

A) Etxez etxeko zaborbilketa zerbitzua honako hiri hondakin hauei dagokie:

1. Etxebizitzetan, herritarrek elikaduraren eta kontsumoaren ondorioz sortzen dituzten hondarrak.

2. Herritarrek edo Udalaren garbiketa zerbitzuek espaloiak eskobatzeko sortzen diren hondakinak.

3. Etxeetako hondakinen parekoak: horrelakotzat joko dira ondotik aipatzen diren hauek, baldin egunero uzten dena 50 litrotik beheitikoa bada.

a) Zuhaitzak kimatzean eta landarezaintzako lanetan sortutako saskara, xehakaturtua utziz gero.

b) Saltokietako salgaien azalak, ontziak eta gainerako hondakin solidoak.

c) Zerbitzu, merkataritza edo industri jardueretatik heldu diren hondakinak, etxeetako hondakinen antzekoak.

d) Jaki prestatuak edo edozein motatako kontsumizioak eskaintzen dituzten ostatu, jatetxe edo gainerako establezimenduetan sortzen diren hondakinak. Halaber, supermerkatu, autozerbitzu eta gisako establezimenduetan sortutakoak.

e) Egoitza, hotel, ikastetxe eta bertze establezimendu publikoek sortzen dituzten kontsumoko hondakinak, oro har.

f) Udal azoken jardueretatik heldu direnak.

B) Etxeetako zaborbilketan inoiz ere jasoko ez diren bertzelako hondakinak (horrenbertzez, debeku da erabilera publikoko edukiontzietan uztea):

1. Industrialak: hona hemen zein joko diren industrialtzat:

a) Lantegi, tailer, biltegi eta denda handietan sortutako hondar, errauts eta zepak; eta hondakinak tratatzeko instalazioetan sortuak.

b) Pneumatikoak.

c) Abeltzaintzako eta nekazaritzako ustiategietan sortuak.

d) Oro har, itxura, bolumena, pisua, egunero ateratzen den kantitatea, hezetasuna eta bertze kontuan izanik, Sakanako Mankomunitatearen zerbitzuen iritziz etxez etxeko zaborbilketan jaso ezin diren hondakinak, eta egunero ateratzen den kantitate hori 50 litro baino handiagoa bada.

2. Ospitaleko hondakinak.

3. Hildako animaliak.

4. Lurrak eta obra-hondakinak.

5. Altzariak, etxe tresnak, traste zaharrak.

12. artikulua. Honako ordenantza honi dagokionez, etxez etxeko zaborbilketaren barrenean sartuko dira 11.A) artikuluan zehazten diren nahitaez bildu beharreko hiri hondakin solidoak.

13. artikulua. Etxez etxeko zaborbilketaren zerbitzuan lan hauek egingen dira:

a) Uzteko guneetatik zaborrak hartu eta ibilgailuetara eramatea.

b) Zaborrak ibilgailu horietara hustea.

c) Edukiontziak, hustu ondoren, zeuden lekuan uztea.

d) Lan hauek direla medio bide publikoan botatako zaborrak biltzea.

e) Zaborrak garraiatu eta Sakanako Mankomunitateak ezarritako araztegietan deskargatzea.

f) Edukiontziak garbitzea.

14. artikulua. Sakanako Mankomunitateak edo Mankomunitateko udal bakoitzak urtero ezarriko ditu etxez etxeko zaborbilketa zerbitzuaren tasa eta tratamenduarena, horri buruzko ordenantza fiskalak zehazten duenaren ariora.

II. KAPITULUA

Etxez etxeko zaborbilketa egiteko moduak

15. artikulua. 1._Sakanako Mankomunitateak edukiontzien bidezko etxez etxeko zaborbilketa ezarriko du, Mankomunitateko udal bakoitzaren interesak kontuan harturik egokien jotzen duen maiztasunarekin.

2._Sakanako Mankomunitateko zerbitzuek urtero emanen dute aditzera bilketa zerbitzua emateko aurreikusitako programazioa, beti ere zerbitzuaren beharrak kontuan izanda.

3._Sakanako Mankomunitateak interes publikoaren ikuspegitik komenigarritzat jotzen duenean, edozein unetan, iruditzen zaizkion gorabehera guztiak alda ditzake bilketa zerbitzuen programan.

4._Mankomunitateko zerbitzuek aldaketarik egin gogo badute (zerbitzuaren ordutegia, modua, maiztasuna), aldez aurretik eta behar den denborarekin jakinarazi beharko dute; Mankomunitateko buruak larrialdi egoeretan emandako xedapenak dira salbuespena.

16. artikulua. 1._Erabiltzaileak beharturik daude Mankomunitateak paratzen dituen edukiontziak zuzen erabiltzera.

2._Edukiontziek bete beharko dituzte Sakanako Mankomunitateak ezartzen dituen baldintza teknikoak.

3._Mankomunitateko zerbitzuek finkatuko dute edukiontzien nolakoak izan behar duten, etxebizitza multzo batean, eta merkataritzako edo industriako lokal edo establezimenduetan zenbat paratu behar diren; orobat, non paratu behar diren.

4._Jabetza publikoko edukiontziak izanen direnez, Sakanako Mankomunitateko zerbitzuek aldatuko dituzte, hondaturik daudenean. Aldaketa erabiltzailearen kontura izan daiteke, baldin eta gaizki erabiltzeagatik hondatu badira.

5._Sakanako Mankomunitateak edukiontzien kokalekua alda dezake baldin eta interes publikorako komenigarritzat jotzen bada betiko edo aldi baterako. Aldi baterako izan denean, lehen zeuden tokira itzuliko dira lekuz aldatzeko arrazoia desagertzean.

6._Sakanako Mankomunitateko zerbitzuek hainbertze egunetik behin garbituko dituzte beren jabetzako edukiontziak; partikularrak direnak ere garbi ditzakete, betiere jabeen kontura.

7._Sakanako Mankomunitateak pasabideak paratzeko eta hiri espazioaren erreserba bereziak egiteko eska dezake, zamalanetarako eta edukiontziak behar bezala kontserbatzeko.

Era berean, hondakin anitz sortzen duten jarduerak _arraindegiak, supermerkatuak, elikagaien industriak, eta abar_, azalera eraikia 200 metro karratutik goitikoa badute, leku itxi bat beharko dute izan, baina behar adina aireztaturik, zaborrak edukiontzietan hor uzteko, eta edukiontziak kanpora atera beharko dituzte ordenantza honek zehazten dituen leku eta orduetan.

8. _Arrunt debekaturik dago edukiontzien parean ibilgailuak aparkatzea.

Mankomunitateko kide diren Udalek beren udal ordenantzetan aipatuko dute debekaturik dagoela ibilgailuak edukiontzien parean aparkatzea edo zaborrak hartu eta husteko lanak eragozteko moduan aparkatzea; horretarako, lurreko seinaleak erabil ditzakete, egoki juzgatzen badute, eta haien esku izanen da zehatzeko ahalmena, trafikoko bertze arau-hauste bat balitz bezala.

9. _Mankomunitatean sarturik dauden udalek, beren aldetik, beren lurralde barrutiko gunetan lurpeko edukiontziak ezartzea hautatu ahal izanen dute, betiere baldin eta halakoen ezarpena une orotan Mankomunitateak orduan erabiltzen duen bilketa sistemarekin bateragarria gertatzen bada, ondorengo baldintzak bete beharko direlarik:

_Hautatutako sistemaren ezarpena eta lanengatiko inbertsioa hura aukeratu duen Udalaren gain egonen da.

_Bilketa guneen kokapenak eta instalazioaren ezaugarriak Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek ontzat emanak beharko dute izan.

_Lurpeko guneetarik bakoitzean jarri beharreko edukiontzi kopuru gutxienekoa zein horien bilketa maiztasuna, Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek erabakia izanen dira.

_Guneen garbiketa eta mantenimendua Udalaren gain egonen dira. Mankomunitatea, beste toki guztietan bezala, instalazioan dauden edukiontzien garbiketaz eta mantenimenduaz arduratuko da.

_Bilketaren gainkostua (zamatze lanean emandako denboraren luzapenagatik), dagokion Udalak Mankomunitateari ordaindu beharko dio.

_Toki bakoitzean gainkostu hori ondoko formularen arabera kalkulatu izanen da:

$$104 \text{ euro} \times (F_b + F_h + F_u)$$

F asteko bilketa kopurua da, eta azpindizeak (b, h eta u) edukiontzi motaren arabera dira (berdea, horia eta urdina). (Ca = gainkostua).

_Sistemaren akatsengatik-edo hondakin solidoen bilketa ezin burutan atera gertatuko balitz inoiz, Udalak ahalik eta denbora laburrenean sistema konpondu beharko du, eta, bitartean, zerbitzu egokia bermatzeko beharrezko bitartekoak eskaini beharko ditu.

_Dagokion Udalak gunea handitzeko konpromisoa hartu beharko du, dagoena gutxiegi bilakatu denetan, saltoki berriak zabaldu direlako edo beste edozer gertakari dela eta.

17. artikulua. Erabiltzaileak, aurreko bi artikuluetan ezarritako betebeharez gainera, bertze hauek ere izanen ditu:

1._Sakanako Mankomunitateak zehazten dituen edukiontziak erabiltzea, indarra duen legezko arauteriari jarraikiz. Aipatu edukiontziak Mankomunitatearenak izanen dira.

2._Erabiltzaileak zaborra edukiontzietan sartzera beharturik daude, ezarri araei jarraikiz. Debekaturik dago bilketa elementu hauek uzteko dauden eremuen inguruan zaborrik uztea.

3._Erabiltzaile nahiz zabor biltzaileek arreta handiz erabiliko dituzte zaborrontziak, kalterik jasan ez dezaten.

4._Herritarrek ez dituzte zamalanak eta eramate lanak eragotziko.

5._Debekaturik dago zaborra sueltoan botatzea edukiontzietara. Erabiltzaileak, partikularra nahiz denda txikia dela, ongi itxitako boltsa hermetikoetan sartu beharko ditu bere hondakinak, zikin ez daitezzen.

6._Erabiltzaileak ezin izanen ditu edukiontziak bide publikoan dauden tokitik mugitu. Ez bertze toki bat izatea nahiago duelako, ez hondakinak hartara botatzeko erosoago zaiolako, ez da inolako arrazoirik onartuko.

7._Ezin izanen da edukiontzietara bota eduki likido handiko hondakinik, ezta hondakina bota ondoan edukiontzia pisua 150 kg-tik gora eramanen lukeenik ere.

8._Hiriguneetan kokaturiko saltokiek edo industriek udalerrietako bide publikoetan dauden edukiontziak erabili ohi badituzte eta horiek bizilagunendako gogaikarriak diren hondakinak sortzen badituzte usaina edo gaiak direla eta (hala nola arraindegietan), Mankomunitateak behartzen ahalko ditu udalerrietatik kanpo kokaturiko halako edukiontzi batzuk erabiltzera, aipatu hondakin motetarako, bederen, han ez baitira gogaikarri gertatuko. Seinaleak paratuko dira edukiontzi horiek non dauden adierazteko. Betegar hori bete ezean, erantzuleari idatziz jakinaraziko zaio eta behar den zehapena ezarriko.

9._Zaborra uzteko ordutegia arratsaldeko 19etan hasi eta hurrengo goizaldeko 6etan amaituko da. Debekatuta dago hondakinak ordu horietatik aparte uztea, usain txarrik edo bizilagunentzat bertze gogaikarrik izan ez dadin.

Zenbait kasu partikularretan, denden kasuan bereziki, haiek ireki eta ixteko ordutegia arestian aipatutakoarekin bat ez badator, sortzen dituzten hondakinak bide publikoan bildu gabe egon ez daitezzen, Mankomunitate honi eskabidea luzatuko diote, bertan agertuz zein arrazoirengatik atera behar izaten duten zaborra ordutegitik kanpo. Mankomunitateak erantzun egingen dio eskabideari, eta kasu bakoitzari dagokion konponbidea zehaztuko du.

10._Sortzen diren hiri hondakin solidoak ezin izanen zaizkie inola ere herrietako bideen garbiketa egiten duten langileei eman.

11. _Produktu geldoak bilketa sailkatuetako horretarako diren edukiontzietan utzi behar dira, III. kapituluaren zehazten den bezala.

Geldotzat hartuko dira usteltze azkarra izaten ez duten hondakinak, hala nola beira, papera, kartoia, plastikoa, enbalajeak, brikak eta metalak.

12. _Debekaturik dago pilak eta bateriak uztea edukiontzi berdeetan edo bilketa sailkatuetakoetan. Horiek edukiontzi berezietan utzi beharko dira, izan ere horrelakoak saltzen dituzten denda guztietan izanen dira.

Sakanako Mankomunitateak, bere jokabidea dela medio edukiontziak jaso edo bere lekuan paratzeko zerbitzua eragozten dutenei zehapena jarriko die.

III. KAPITULUA

Zaborren bilketa sailkatua

1. ATALA

Orokortasunak

18. artikulua. Bai Hondakinei buruzko 10/1998 Legeak bai eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko 11/1997 Legeak betebeharreko helburu batzuk finkatu dituzte, ontzien birziklapenaren eta balioztapenaren arloan, hori guztia ingurumena eta jendearen osasuna babesteko asmoz.

19. artikulua. Aitzineko artikuluan ezarritakoari dagokionez, Sakanako Mankomunitateak bilketa sailkatuaren sistema baduenez, erabiltzaileak sailka edo edukiontzi berezietan utzi behar ditu halako hondakinak, aprobetxamendu desberdina dutenak edo aparte biltzea merezi dutenak.

Sailkako bilketako zaborrontzietara, haietako bakoitzerako bereziki zehaztuta dauden hondakinak botako dira, inola ere ez bertzelakorik.

20. artikulua. Era berean, Sakanako Mankomunitateak zenbait gairen bilketak egin ditzake, atez ate, eguna, ordua eta zer bilduko den _papera, trapaak, etab._ zehaztuta.

21. artikulua. 10/1998 Legearen arabera, hiri hondakin solidoak direnez gero, Sakanako Mankomunitatea hondar horien jabe bihurtzen da biltzeko uzten diren unetik, eta zehapena ezar diezaioke hondakinak eskuztatu edo ebasten dituenari.

22. artikulua. Enpresak edo industriak badira hondakinen artean birziklatzen ahal direnak sortzen dituztenak, eta horiek sortzen badituzte 11. artikuluko B ataleko 1-d puntuan zehazten den bolumena baino gehiago, horiek berezita utzi beharko dituzte eta euren eraman Arbizuko hondakindegian dauden birtziklatzeko instalazioetara, edo euren erabilerarako ez besterako edukiontzien eskaera egin, 34. artikuluan ezartzen den gisan.

Ordenantza fiskaletan ezarriko dira tasak, hau da, hondakinak berezita uzten diren edota birtziklatzen ahal direnak beste hondakinekin nahasita uzten diren ikusita. Halaber, bilketa sailkaturako diren edukiontzi eskusiboak biltzeko tasak ezarriko dira.

2. ATALA

Beiraren bilketa sailkatua

23. artikulua. Ecovidrio entitateak edukiontzi bereziak ezarrita ditu beira uzteko, berdeak dira eta iglu erakoak.

Edukiontzi horietara, beirazko edozein ontzi mota baizik ez da botako, berdin da zein kolore duen, tapaki barik eta ezein likido edo gairik gabe.

Edukiontzi horiek aho bat izaten ahal dute sarreratako, beirazko ontziak botatzeko aukera eman bai baina bertze edozein hondakin mota botatzea galaraziko lukeena; izan ere, hondakin horiek edukiontziko materiala birziklatzea galaraz dezakete, eta birziklatzea da sailkako bilketaren helburua.

Beiraren edukiontziak oso noizean behin hustekoak direnez, bat beterik dagoela ikusiz gero, edozein herritarrek Mankomunitateko bulegoetara deitzen ahal du, hustu dezaten.

3. ATALA

Sailkako bilketa: papera eta kartoia

24. artikulua. Sailkako bilketaren barnean, Mankomunitateak papera eta kartoia biltzeko edukiontzi bereziak paratuak ditu, bilketa arruntaren eite beretsukoak baina urdin kolorekoak, tapakia paratuta eta 1.000 litroko edukiera dutenak.

Edukiontzi horietara edozein motatako papera edo kartoia baizik ez da botako, baina bertzelako produkturik ezkoak, plastikoak edo aluminioa ez dutela; beraz, tetra brik ontziak ezin dira bota.

Kartoizko kaxak behar bezala tolesturik edo zatikaturik bota beharko dira, edukiontzia barnean behar baino leku gehiago har ez dezaten. Ahal dela, zaborrontzietatik kanpo ez da kartoizko kaxarik utziko, haizeak herrestatu eta karriketan barna barreiatzen ahal dituelako.

Kaxak handiak direlako edukiontzian sartu ezin direnean, tolestu eta, ahal izanez gero, lotu egingen dira, edo, gutxienez, tolestuta sartu edukiontzien artean, barreia ez daitezen.

Edukiontzi horiek aho bat izaten ahal dute sarreratako, 15-60 zentimetrokoa, papera eta kartoia botatzeko aukera eman bai baina bertze edozein hondakin mota botatzea galaraziko lukeena; izan ere, hondakin horiek edukiontziko materiala birziklatzea galaraz dezakete edo materiala garbitzeko tratamendua egitera behartu.

Halako dendak baldin badira kartoi kopuru handiak sortzen dituztenak eta horiek egunero edukiontzian sartzeko nekosoak bada, eskatu ahal diote Mankomunitateari etxeko bilketa zerbitzua emateko.

4. ATALA

Sailkako bilketa: ontzi arinak

25. artikulua. Sailkako bilketaren barnean, Mankomunitateak ontzi arinak biltzeko edukiontzi bereziak paratuak ditu, bilketa arruntaren eite beretsukoak baina hori kolorekoak, tapakia paratuta eta 1.000 litroko edukiera dutenak.

Edukiontzi horietan, paperezkoak eta kartoizkoak edo beirazkoak ez diren ontziak sartuko dira bakarrik; erran nahi baita: plastikozko ontziak, metalezko latak eta tetra brick ontziak, edo, noizbait hala erabakitzen bada, bertzelakoak.

Edukiontzi horiek aho borobila badute, 25 zentimetroko diametrokoa, ontziak botatzeko aukera eman bai baina bertze edozein hondakin mota botatzea galaraziko lukeena; izan ere, hondakin horiek zaborrontziko materiala birziklatzea galaraz dezakete edo materiala garbitzeko tratamendua egitera behartu.

IV. KAPITULUA

Zaborretarako muntadura finkoak erabiltzea

26. artikulua. Galarazia dago hondakin solidoak estolderi sarera botatzea.

27. artikulua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzuek emandako baimena beharko da, alde zuzenetik, etxeko erraustegiak edo zaborren dentsitatea handiagotzeko muntadurak paratzeko.

V. KAPITULUA

Hiri hondakin solidoen bilketa bereziak

28. artikulua. Arestiko 11.B) artikuluan definitu diren hondakinen bilketa, hiri hondakin solidoen bilketa berezizat hartzen da. Horretarako, Sakanako Mankomunitateak bilketa zerbitzu bereziak ezarriko ditu edo, bertzenaz, erabiltzaileek nola egin behar duten erranen.

29. artikulua. Apirilaren 21eko 10/1998 Legeak ezarritakoaren ariora, Sakanako Mankomunitateak hondakin motaren bat arriskutsua dela uste duenean, hura sortzen duenari edo haren jabe denari eska diezaioke, biltzeari ekin baino lehen, beharrezkoa den tratamendua egin dezan, hondakina arriskugarri bihurtzen duen zera kentzeko, edo pertsona, gauza edo ingurumenarendako arriskugarri izan gabe bildu, garraiatu, tratatu edo deuseztatzeko moduan uzteko eralda dezan.

30. artikulua. Ordenantza honetatik at geldituko dira, hondakin arriskutsutzat hartzen baitira, honako arauotan agertzen diren hondakin guztiak: 952/1997 Errege Dekretuan onetsita, baita haiek bildu dituzten ontzi ontzi eta enbase guztiak, Europako Arautegietan arriskutsutzat hartzen diren haiek eta hemendik aitzina Gobernuak aipatzen dituenak, Hondakinei buruzko 10/1998 Legeak halaxe agintzen baitu.

31. artikulua. Aurreko artikulua dioena bermatu ahal izateko, aurreko artikuluetan zehaztutako hondakinak sortu, eskuztatu edo garraiatzen dituztenak eta baimendutako hirugarrenak beharturik daude hondakinen jatorriari, izaerari, osaketari, ezaugarriari, kopuruari, ebakuazio motari, aurretratamendu sistemari eta behin betiko tratamenduari buruzko informazioa ematera Sakanako Mankomunitateari.

32. artikulua. Sakanako Mankomunitateak zaborbilketa berezien zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko tasak ezarriko ditu urtero, aldian aldiko Ordenantza Fiskalak ezartzen duenaren ariora.

1. ATALA

Industrietako eta saltokietako hondakinak bildu, garraiatu eta botatzea

33. artikulua. Industrietako eta saltokietako hondakinak sortu edo horiek dituenak aldeztatik aurretik eskabidea egin beharko du eta Sakanako Mankomunitateak, 34. artikulua erabilera eskusiboko edukiontziei buruz zehazten dituenaren arabera, aipatu hondakinen kopuruaren eta egoeraren arabera, edo bertzenaz, eskabidea egin duenari baimena emanen dio dagokion tratamendu zentroan hondakinak utz ditzan, horretarako behar diren tasak ezarriko dituelarik.

Edozein industriak edo saltokik, Mankomunitateko lurralde eremuaren barnean kokaturik badago edo, egon gabe ere, hondakinak barnean ekoizten baditu, bere hondakinak bere aldetik eraman eta eskualdeko Arbizuko zabortegian bota ditzake, betiere horiek hiriko hondakinekin parekatzen ahal badira, eta zaborrak botatzeko behar den baimena aldeztatik eskatuta, horren kopia erakusten duela zaborrak botatzen dituen aldioro.

Mankomunitateaz kanpoko udalerrietako enpresek ere eskatzen ahalko dute hondakinak botatzeko baimena. Mankomunitateak erabakitzen badu hondakinak onartzen ahal direla, onartzeko baimena eskatuko zaio Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuari, eta interesatuak arrazoitu egin beharko du zergatik eskatzen duen.

Bota beharreko hondakinen osaketa zein den zalantzazkoa denean, laborategi ofizial baten analisia eska daiteke eta hura Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentura igorri, hondakinak onartzeko edo ez onartzeko.

Zabortegian hondakinen tratamenduaz arduratzen diren langileek industriek eta saltokiek botatuko hondakinak aztertuko dituzte, betiere.

Mankomunitateak botaketa bere aldetik egitera edo edukiontzi eskusibo bat erostera behartzen ahal du interesatua, 34. artikuluan aipatzen diren baldintza eta kasuetan.

Behar den baimena dutela hondakinak eskualdeko zabortegira botatzen dituzten industria edo saltokiek, botatuko kilogramo bakoitzeko, tasa bat ordainduko dute, hondakinen ezaugarrien arabera. Tasa urtero finkatuko du ordenantza fiskalak.

34. artikulua. Etxebizitza partikularrak ez diren erabiltzaileek, hau da: denda, elkarte, industria eta abarrek ... "erabilera eskusiboko edukiontziak" izanen dituzte, ondoko kasuetan:

1. Mankomunitateko zerbitzu teknikoek egiaztatzen badute egunero sortzen diren hondakinen kopurua 50 litrotik goitikoa dela (50 litroko kopuru hau 11. artikuluko B ataleko 1-d puntuan aipatu da), hondakin arrunta izan edo birtziklatzekoak izan. papera-kartoia eta ontzi arinak (plastikoak, latak eta brikak).

2. _Nahiz eta aurreko kasuan aipatutakoa ez gertatu, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek erabakitzen badute hondakin mota jakin horretarako beharrezkoa dela edukiontzi eskusiboa izatea. Hau da: likido kantitate handia, usain txarra, dentsitate handia, etab.

3. _Isolamendu kasu berezia izateagatik, edukiontzia bertze inongo erabiltzailek erabili ezin badu.

Edukiontzi horiek Mankomunitateak berak jarriko ditu; eta 800 edo 1.000 litroko edukia izanen dute.

Mankomunitatearen kontura izanen dira mantenimendua, edo berria jartzea, baliorik gabe gelditzen denean, edota haren garbiketa.

Edukiontzietan kalteak baldin badira eta horiek erabiltzaileak gaizki erabiltzeagatik sortu badira, horiek ordaindu beharko dituzte konponketa gastuak, edota berria jartzearenak, gehiago ezin erabili badira.

Honetan oinarriturik, ordenantza fiskalean ezarriko da zerbitzu horri dagokion tasa eta horren osagai izanen dira, batetik, zenbateko finko bat edukiontzi motaren arabera (hondakin arruntak edo birtziklatzen ahal direnak), eta bestetik, zenbateko aldakor bat, asteen zenbat aldiz bildu behar den ikusita, egun batetik seietara, edukiontzi arrunten kasuan, eta egun batetik hiruetara, bilketa sailkatuaren kasuan. Kostuan sartuko dira edukiontzia kitapena eta arestian aipatu zerbitzuak.

Jabeak komeni zaion lekuan paratuko du edukiontzia, bere jabetzako lurretan, egunean zehar, eta eremu publikora atera beharko du 23ak baino lehen, zerbitzu egunetan bakarrik, hustu ondotik berriz ere handik ken dezakeelarik.

Mankomunitateko zerbitzuek erabilera eskusiboko edukiontzien zaborbilketa egin dezaten, Mankomunitatean erregistratu beharko dira, behar den zaborbilketako kontratuarekin batera eta bertan zehaztuz edukiontzi mota bakoitzaren kopurua eta asteen zenbat egunetan biltzea nahi den.

Asteen zenbat aldiz nahi den bilketa erabaki ondoren, zehatz-mehatz finkatu beharko da zein egunetan egingen den, betiere Mankomunitatearen zerbitzu teknikoaren adostasunez.

Erabilera eskusiboko edukiontzia izatera beharturik daudenek, aipatu bezala egin ordez, eurek beren aldetik beren hondakinak eramane ditzakete Arbizuko Eskualdeko Hondakindegira, aldeztu aurretik Mankomunitateari zaborrak botatzeko baimena eskatuta.

Mankomunitateak agintzen dienean, edukiontzi eskusiboen kontratuen titularrek _saltokiek edo industriek_ horiek kendu egingen dituzte eta hondakinak beren aldetik eramane hondakindegira, Mankomunitateak ematen duen zaborrak botatzeko baimena izan ondoren. Mankomunitatearen ustez, hondakin horiek bilketa zerbitzuari edo Mankomunitateak ezartzen dituen plantetan egiten den tratamenduari arazoak ekartzen dizkietenean egingen da hori.

Nolanahi ere, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek erabakiko dute zein den aukera egokiena _edukiontzi eskusiboa ala zaborrak botatzeko baimena_ kasu bakoitzean. Ordenantza fiskalean urtero ezarriko dira ordaindu beharreko tasak.

Edukiontzi eskusiboren bat erregistratzen duten erabiltzaileek edo _erabilera publikoko edukiontzi hurbilik erabiltzeko egokierarik ez dutela_ beren hondakinak beren aldetik eramaten dituztenek, erregistrotik kanpora aterako dira nor bere Udaletxean, zaborbilketako tasei dagokienez, Mankomunitateak horrela juzgatzen badu.

2. ATALA

Hondakin klinikoak bildu eta garraiatzea

35. artikulua. Hondakin klinikoak bildu, garraiatu eta tratatzean, hondakin haiei buruz irailaren 13an emandako 296/1993 Foru Dekretuan xedatuari jarraikiko zaio.

Mankomunitateko zerbitzuak arduratuko dira Dekretu horretako 1. eta 2. multzoetako hondakinak bildu eta tratatzeaz; 3. multzokoak tratatu eginen dituzte bakar bakarrik, Dekretuan deskribitzen diren sistemetako bat erabiliz geldotu ondoren.

3. ATALA

Hildako animalien bilketa eta garraioa

36. artikulua. Debekatuta dago edozein animalia gorpua Udalek edo Mankomunitateak hartarako egokitutako lurretan ez bertze batzuetan uztea, bai eta jabetza publikoko lurretan ehorztea ere.

37. artikulua. Hildako animaliak utzi nahi dituztenak, Sakanako Mankomunitateak ezarritako zerbitzuez baliatuko dira. Aipatu zerbitzuek animaliak bildu eta garraiatu eginen dituzte, egoki irizten badiote, edo desagertarazi bertzerik ez, behar den tasa ordaindu ondotik, edo Udal bakoitzak horretarako prestatzen dituen zangak erabili.

38. artikulua. Animalia hilen deuseztapenak ez ditu jabeak salbuesten animalia heriotzaren eta horren arrazoien berri emateko betebeharetik, bertze ordenantza eta erregelamenduek horrela ezartzen badute. Gainera, hildako animalia horiek botatzea onartzeko, albaiariak heriotzaren arrazoiei buruz idatzi ziurtagiria erakutsi beharko da.

4. ATALA

Lurra eta obra-hondakinak bildu, garraiatu eta botatzea

39. artikulua. Ordenantza honi dagokionez, lur eta obra-hondakintzat hartuko dira honako hondakin hauek:

1. _Indusketak egin eta gero ateratzen diren lur, harri eta gisakoak.

2. _Eraikuntza, eraispen eta errauspen lanetatik ateratako hondakinak eta, oro har, obra handietako eta ttiketako soberakinak.

3. Aurrekoen antzeko materialak eta egoera berezietan Sakanako Mankomunitatearen zerbitzuek halakotzat jotzen dituztenak.

40. artikulua. Kontrolik gabeko zabor-botatzeak, desegokiro edo baimendu gabeko lekuetan egin ez daitezen, jabetza publikoko lurra baimenik gabe okupatuz, bidezorua hondatuz edo bide publikoa zikinduz, Sakanako Mankomunitateak, edo haren kide den Udal bakoitzak, material mota horiek botatzeko leku batzuk paratuko ditu. Horrela, lur eta obra-hondakinak dituztenek aipatu lekuetan utziko dituzte, tasa halakorik badago Mankomunitateari edo muntaduraren titular den ente publikoari ordaindu eta gero.

41. artikulua. Debekaturik dago lurrekin eta obra-hondakinekin nahasita bertzelako edozein hondakin esaterako, materia organikoa edo etxeetako zein industrietako hondakin geldoak botatzea eta, oro har, hirugarrenei, ingurumenari edo higiene publikoari kalte egin diezaiekeen zernahi botatzea.

42. artikulua. Lurra eta obra-hondakinak eramanen dituzten ibilgailuek bidean deus ere ez galtzeko moduan garraiatuko dituzte, bide publikoa ez zikintzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

43. artikulua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzuek, aitzineko artikuluetan aipatzen denari dagokionez, ukitutako bidea garbitu eta bertan botatako zaborrak kentzen ahal dituzte. Botatze horien erantzule direnei ordainaraziko zaizkie zerbitzuaren kostuak, legokiekeen zehapena deusetan ukatu gabe.

44. artikulua. Mankomunitateko zerbitzuek edukiontzi bereziak paratzen ahal dituzte, kide diren Udalen herriguneetatik kanpoko toki libreetan, etxeetako bolumen txikiko obretatik ateratako hondakinatarako.

Edukiontzi horietan bakarrik bota daitezke 31. artikuluan obra-hondakintzat hartu diren haiek, eta gehienez ere m³ bat egunean.

Arrunt debekaturik dago obra-hondakinak edukiontzi horietatik kanpora botatzea. Beterik baldin badaude, erabiltzaileak udalerriko hondakindegira eraman eta bere hartan bota beharko ditu. Horrela egiten ez bada, dagokionak zehapen ahalmena erabiliko du.

Mankomunitateko zerbitzuek, aldian behin, edukiontziak hartu eta dagokien herriko hondakindegira hustuko dituzte.

5. ATALA

Altzari, etxeko tresna eta traste zaharren bilketa

45. artikulua. Sakanako Mankomunitateak altzari, etxeko tresna eta traste zaharrak biltzeko, doako zerbitzu berezi bat ezarriko du.

Zerbitzu hori partikularren etxebitei baizik ez zaie eskainiko. Mankomunitateak kasuan-kasuan erabakiz gero, irabazi asmorik gabeko ente edo erakunde publiko edo pribatuetara ere zabaltzen ahal da, gaiak hondakindegira eramateko ahalik ez badute. Bertzenaz, interesatuak bere aldetik eraman beharko ditu eta ez zaio horregatik bat ere tasarik ordainaraziko ezta baimenik eskatuko ere, noizean behinka egiten badu. Aldiz,

botatzea ohikoa bada, interesatuak zabor botatzeko baimena eskatu beharko du eta indarra duten tasak kobratuko zaizkio, 26. artikuluan zehazten den bezalaxe.

6. ATALA

Erabilitako pneumatikoak uzteko lekua

46. artikulua. Sakanako Mankomunitateak gune bat bereiziko du kontrolatutako hondakindegian, erabilitako neumatikoak uzteko, ezin baitira edukiontzietara bota; gero, egokitzat jotzen den tratamendua eman behar zaie.

Automozio lantegiak eta pneumatiko erabiliak botatzen dituen bertze edozein enpresa mota beharturik daude 26. artikuluan ezarritakoari jarraikitzen: zabor botatzeko baimena eskatu, beren aldetik zabortegira eraman eta behar den tasa ordaindu, botatuko kilogramo bakoitzeko, edota zuzenean emanda kudeatzaile baimendu bati.

III. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

47. artikulua. Zehapen ahalmena Mankomunitateak du bere eremu osoan. Honako jarduera eta egoera hauek arau-haustetzat hartuko dira:

1. Hondakin solidoak ezarritako zabortegitik kanpo uztea edo Mankomunitateak edo kide diren Udalek baimendu gabeko lekuetan uztea; arau-haustearen erantzuletzat hartuko dira egileak eta, ibilgailuetan garraiatzen badira, horien jabeak.
2. Erabiltzaileak berak sortutako hondakin solidoak, arrazoirik gabe, Mankomunitatearen esku ez uztea.
3. Mankomunitateak, Ordenantza honen bidez edo hau garatzeko eman ebazpenen bidez, hondakinak biltzeko ezarritako baldintza, leku eta orduei ez lotzea.
4. Bide publikoan edukiontzien lekua aldatzea, denbora baterako edo betikoz.
5. Mankomunitatearen oharrei kasurik ez egitea, erabiltzaileei erraten dienean erabilera eskusiboko edukiontziak erosteko edo, hondakin gogaikarriak sortzen dituzten saltokien eta industrien kasuan, hondakinak edukiontzi isolatuera botatzeko, ordenantza honen 17. artikuluko 8. puntuan jasotzen den bezala.
6. Edukiontzietan pintaketak egitea, edozein motatako paperak itsastea, edo publizitaterako erabiltzea; azken kasu horretan iragarlea bera hartuko da erantzuletzat.
7. Edukiontzietan kalteak eragitea. Araua hautsi duenaren kargu geldituko dira horiek konpontzeko gastuak.
8. Hondakinen garraioa eta zamalanak galaraztea, edota edukiontziak beren lekuetan paratzera ez uztea.

9. _Garraioko ibilgailuak edukiontzietara hurbil daitezen eragozte eta, oro har, zerbitzua eman ahal izateko egin beharreko jarduerak egin daitezen ez uztea.
10. _Hondakin solidoak estolderi sarera botatzea.
11. _Sakanako Mankomunitatearen baimenik gabe etxeetan hondakineterako instalazioak paratzea.
12. _Hondakin toxiko edo arriskutsuak uztea edota biltzen direnekin batera nahastea.
13. _Arriskutsuak edo toxikoak izan daitezkeen hondakinei buruz Mankomunitateak eskatutako argibideak ukatzea, eta benetan halakoak direnen kasuan, haien jatorriari, ezaugarriari, aurretratatamendu motari eta abarri buruzko datuak ez ematea.
14. _Biltzen ez diren hondakin klinikoak uztea, edo horiek kutsatu gabeekin edo aurretratatamendu prozesuan daudenekin nahastea.
15. _Animalien gorpuak edozein lurretan uztea edo jabetza publikokoak direnetan ehorztea.
16. _Ordenantza hau bete ahal izateko beharrezkoak diren ikuskapenak eta egiaztapenak egin daitezen ez uztea.
17. _Hondakinak lurrekin edo obra-hondakinekin nahastea.
18. _Hondakin solidoak behar bezala utzi eta gero ebastea.
19. _Halako hondakin batzuetarako sailkako bilketa ezarri bada, horrelakoak, horretarako edukiontzi berezietara bota beharrean, etxez etxeko bilketa zerbitzuko edukiontzietara botatzea, eskuarki eta neurri handietan egiten bada.
20. _Oro har, ordenantza honetako eta Hondakinei buruzko 10/98 Legeko xedapenen kontra dagoen edozein egintza edo huts.
48. artikulua. Zigor ekonomikoen mugak:
- Udal Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legearen arabera, arau-hausteak ondoko isunekin zehatuko dira:
- A) Arau-hauste arinak 350 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira.
- B) Arau-hauste larriak 750 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira.
- C) Arau-hauste oso larriak 2.000 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira.
49. artikulua. A) Arau-hauste arinak dira ordenantza honetako 47. artikuluko 3, 4, 5, 6, 12, 14, 15, 17, 18 eta 20 zenbakietakoak.
- B) Arau-hauste larriak dira 47. artikuluko 1, 2, 9, 13 eta 19 zenbakietakoak.

C) Arau-hauste oso larriak dira 47. artikuluko 7, 8, 10 eta 11 zenbakietakoak.

50. artikulua. Arau-hauste arina behin eta berriz egitea arau-hauste larritzat hartuko da.

Arau-hauste larria behin eta berriz egitea arau-hauste oso larritzat hartuko da.

51. artikulua. Zehapenak aplikatzerakoan kontuan hartuko dira erruduntasun maila, egindako okerraren tamaina, arau-hausteak berarekin dakarren arriskua eta egon daitezkeen bertzelako egoera aringarri edo astungarriak.

Hori guztia ukatu gabe, arau-hausteei beren gain hartuko dituzte beren egintzen ondoriozko kostuak, eta beharturik egonen dira arau-haustea egin baino lehenago zegoen egoera lehengoratzera.

52. artikulua. Zehapen bidea ofizioz edo alderdi baten eskariz hasiko da, behar den salaketa egin eta gero. Salaketa justifikatu gabea eta ausartegia bada, ikuskapenak sortu gastuak salatzailearen kontura geldituko dira.

53. artikulua. Zehapen espedienteari probidentzia bidez emanen zaio hasiera, honako edukiarekin bederen:

a) Ustez erantzule direnen identifikazioa.

b) Prozedurari hasiera emateko abiapuntu izan diren egintzak, labur azalduz, haiei dagozkiekeen kalifikazioa eta zehapenak, ezertan ukatu gabe instrukzioetik hel daitekeena.

c) Instruktoea eta, halakorik balitz, prozeduraren idazkaria, zehazki adieraziz haiek errefusatzeari buruzko arauak.

d) Espedientea ebazteko organo eskuduna eta horrelako eskumena ematen dion araua, adieraziz ustezko erantzuleak aukera baduela bere borondatez erantzukizuna aitortzeko, hori guztia abuztuaren 4ko 1398/93 Errege Dekretuaren 8. artikuluan adierazitako ondorioekin.

e) Ezarritako epeen barrenean, alegazioak egiteko eta prozeduran entzutea izateko eskubidea.

54. artikulua. Hasiera emateko erabakia instruktoreari igorriko zaio, horri buruz dauden jarduketak guztiekin batera, eta jakinarazi egiten zaie salatzaileari, horrelakorik balego, eta interesatuei, alegia, erruduntzat hartzen direnei. Jakinarazpenean berean ohartaraziko zaie interesatuei ezen, prozedura hasteko edukiari buruz hamabost eguneko epean alegaziorik egin ezean, hasiera hori ebazpen proposamentzat hartzen ahal dela, baldin eta egotzitako erantzukizunari buruzko pronuntziamendua agertzen bada bertan, eta hori guztia abuztuaren 4ko 1398/93 Errege Dekretuko 18 eta 19. artikuluetan adierazitako ondorioekin.

55. artikulua. 1. _Interesatuek hamabost eguneko epea izanen dute egoki juzgatzen dituzten alegazio, dokumentu eta informazioak aurkezteko eta, nahi izanez gero, probak proposatzeko, horretarako erabili behar dituzten baliabideak zehaztuz.

2. _Arestiko lerroaldean agertzen den jakinarazpena eginda, prozeduraren instruktoreak ofizioz eginen ditu egintzak aztertzeko beharrezko diren jarduketak guztiak, erantzukizun zehagarriak ote diren finkatzeko jakin behar diren datuak eta informazioak eskatuz.

3. _Prozeduraren instrukzioaren ondorioz egintzen hasierako finkapena, kalifikazioa, ezartzen ahal ziren zehapenak edo zehagarri diren erantzukizunak aldatzen badira, hori guztia jakinaraziko zaio ebazpen proposamenean errudun agertzen denari.

56. artikulua. 1. _Alegazioak jasota edo hamabost eguneko epea iraganda, instrukzio organoak erabaki dezake proba epea irekitzea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 80 eta 137.4 artikuluetan xedatuarekin bat. Epe hori gutxienez hamar eguneko eta gehienez hogeita hamarrekoa izanen da.

2. _Erabakia interesatuei jakinaraziko zaie, eta bertan ezesten ahal dira _betiere horretarako arrazoiak emanez _haiek aurkeztutako probak, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 137.4 artikuluan ezarritakoaren arabera bidegabeak badira.

3. _30/1992 Legearen 81. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eginen dira instrukzio organoak egoki juzgatzen dituen probak; proba horiek ez dira prozeduraren edozein unetan interesatuek aurkezten ahal dituzten agiriak.

4. _Agintea aitortua duten funtzionarioek egiaztatutako egintzek, legeak eskatzen dituen betekizun guztiak eginda agiri publikoen bidez aurkezten badira, frogen balioa izanen dute, betiere ezertan ukatu gabe administratuek beren eskubideen edo interesen alde aurkezten ahal dituzten frogak.

5. _Egindako proben balorazioa funtsezko oinarria bada prozeduran hartzen den erabakian, ebazpen proposamenean sartu beharko da, egintzen ebaluazioan ezinbertzeko atala delako.

57. artikulua. Froga bukatuta, halakorik egiten bada, prozeduraren instrukzio organoak ebazpen proposamena eginen du eta bertan adieraziko egintza guztiak behar bezala arrazoituak, azalduz zer egintza jotzen diren frogatutak eta haien kalifikazio juridiko zehatza. Halaber, zer arau-hauste egin den zehaztuko du, halakorik egin bada; orobat, zein diren erantzuleak eta jarri beharko litzaiekeen zehapena, edo bertzela, arau-hauste edo erauntzukizunik ez dagoela azalduko du.

58. artikulua. 1. _Ebazpen proposamena interesatuei jakinaraziko zaie, prozedura ikusgai dutela adieraziz. Jakinarazpenarekin batera prozedura osatu duten dokumentuen zerrenda ere igorriko zaie, interesatuek egoki juzgatzen dituztenen kopiak egin ditzaten, eta hamabost eguneko epea emanen zaie alegazioak egiteko eta prozeduraren instruktoreari egoki juzgatzen dituzten agiriak eta informazioak aurkezteko.

2. _Ordenantza honetako 54. artikuluan azalduetakoa salbu, entzutea emateko tramitea saihesten ahal da, betiere prozeduran interesatuak egindako alegazioak edo aurkeztutako frogak bakarrik agertzen badira edo horiek bakarrik kontuan hartzen badira.

3. _Ebazpen proposamena berehala igorriko zaio prozedura ebatzi behar duen organo eskudunari, prozeduran diren gainerako agiri, alegazio eta informazioekin batera.

59. artikulua. Organo eskudunak ebazpena emanen du, arrazoiak emanez. Interesatuek agertutako gai guztiak eta prozedura horretatik eratorritakoak erabakiko ditu ebazpen horrek.

Ebazpena gauzatuko da organo eskudunak ebazpen hori emateko borondatea zuela egiaztatzen duen edozein bide erabiliz.

Ebazpena hamar eguneko epean emanen da, ebazpen proposamena eta prozeduran diren agiriak, alegazioak eta informazioak jasotzen direnetik.

Zehapen prozedura hauen ebazpenek, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 89.3 artikuluan zehaztutako elementuak biltzeaz gain, egindako frogen balorazioa bildu beharko dituzte, batez ere erabakiaren funtsezko oinarri direnak. Halaber, egintzak finkatuko dituzte eta, halakorik balitz, erantzule diren pertsonak, egindako arau-hausteak eta ezartzen diren zehapenak, edo, bertzela, arau-hausterik edo erantzukizunik ez dagoelako adieraziko dute.

Ebazpenak interesatuei jakinaraziko zaizkie.

Hasi eta sei hilabete iraganda oraindik ebazpenik ematen ez bada, eta kontuan hartuta interesatuei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik izan daitezkeen eteteak, azaroaren 26ko 30/92 Legearen 43.4 artikuluan ezarritako iraungitze epea kontatzeari ekingo zaio.

Iraungitze epea iraganda, organo eskudunak ziurtagiria luzatuko du, interesatuak hala eskatuta, eta bertan agertuko da prozedura bukatu dela eta jarduketak artxibatu egin direla.

60. artikulua. 1. _Administrazio bideari amaiera ematen dioten ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua paratzen ahal da Nafarroako Administrazio Auzitegian, hilabeteko epean jakinarazpen egunetik.

2. _Administrazio bideari amaiera ematen ez dioten ebazpenak ez dira betearazle izanen, harik eta errekurtsu arruntaren ebazpena eman arte, interesatuak halakorik jarri badu, edo hura jarri gabe ere, horretarako epea bukatu arte.

3. _Zehatutako arau-hausleak ebazpenaren kontra errekurtsua jartzen badu, errekurtsu horren ebazpenean eta, halakorik bada, administrazioak bere kabuz berrikusteko prozeduren ebazpenetan, ezin izanen zaizkio interesatuari zehapen handiagoak jarri.

61. artikulua. 1. _Zehatzen diren egintzek Administrazioari kalteak edo galerak ekarri badizkiote, prozeduraren ebazpenean honako hau sartzen ahal da:

Arau-hausleari eskatzea arau-haustearen ondoriozko egoera lehengo hartara itzuli behar duela.

Egindako kalte-galerengatik sortzen den kalteordaina, haren zenbatekoa prozeduran zehar finkatzerik bada.

2. _Aurreko lerroaldeko b) letran azaldutako zenbatekoa finkatzerik ez bada, egindako kalte-galerengatik sortzen den kalteordaina prozedura osagarriaren bidez finkatuko da,

eta haren ebazpena betearazlea izanen da ematen den unetik. Prozedura hori itundutako amaierakoa izan daiteke, baina ez amaiera horrek, ez arau-hausleak heldu daitekeen ebazpena onartzeak, ez dute esan nahiko arau-hausleak bere erantzukizuna onartzen duenik. Prozeduraren ebazpenak amaiera emanen dio administrazio bideari.

IV. TITULUA

Erreklamazioak eta jurisdikzioa

62. artikulua. Toki Administrazioaren arloan indarra duen legeriak ezarri prozedurari jarraikiz, zerbitzuen baldintzak direla-eta aurkeztutako erreklamazio, zalantza eta jabeldurak, kasu bakoitzean administrazio publikoko erakunde eskudunak ebatziko ditu, administrazio bidea erabiliz. Horrek ez du galaraziko Sakanako Mankomunitatearen jarduketan eta erabakien aurka egitea, hori bidezko denean.

63. artikulua. Aitzineko artikuluan ezarritakoa galarazi gabe, justizi auzitegiei dagokie beren eskumeneko aferetan parte hartzea, alderdi interesatuaren eskariz.

Nolanahi ere, erabiltzailearen eta Mankomunitatearen edo haren edozein egintzaren artean sortzen diren auziak, toki entitateen egintza eta erabakien aurka jotzeko araubideari lotuko zaizkio, administrazio izaerako xedapenei hertsiki jarraikiz, hura toki entitatea baita.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe uzten dira bai ordenantza hauetan arautzen diren gaiei buruz orain arte izan diren ordenantzak, bai ordenantza honi aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko arauak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.